

# ...eta **kitto!**

713 zkia. 2010-III-12

ASTEKARIA

TOKIKOM



## **BIZITZA** EIBARTARRAK **Haitin** LAGUNTZEN hondamendiaren **OSTEAN**

[www.jetaime.es](http://www.jetaime.es)

*Etarri orain eta lortu egizu*

*%10 deskontuan*

# ZERØ

Estaziño, 10



R.P.S. 5508



# 2URTE ZURE

ikusmena  
eta  
entzumena  
**ZAINTZEN**



**J. Etxeberria, 13**  
**Tfnoa. 943 700 230**

## Hortz-inplanteekin berriro mastekatuko duzu

**G:** Egia da hortz-inplanteak masailezurrean ez direla nabaritzen eta eurekin mastekatzeko indarra berreskuratzen dela eta praktikoki edozeri egin diezaiokegula haginka?

**E:** Hortz-inplanteak hezur egiturari josten dira eta, nerbio-bukaerarik ez dutenez, ez direla ezer ere sentitzen. Hortz berriekin paziente batzuk euren berezko hortzekin inoiz sentitu ziren baino hobeto sentitzen dira eta, egia esateko, batek edozer gauza jan dezake arazo barik.

### **Oraindik ez zaude guztiz prest?**

Deituiguzu **902 468 209**ra eta korreoz bidaliko dizugu bestelako informazio guztia.

Ibarbea Zehar., z/g (Rialto Zehar.) EIBAR [www.esteticadelasonrisa.com](http://www.esteticadelasonrisa.com)



Andoni Guisasola Ron Dokorea  
R.P.S. 15615

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA:**Urkizu, 11 - solairuartera  
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belaustegi,

S. Hernandez eta E. Belar.

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76**AZALEKO ARGAZKIA:**

Mireya Merinok lagata

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz

**TIRADA:**

7.950 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

**GAIÑEKORA JASO.-** Suzko armetan tiro egiteko prestatu, gatu 'gatilloa' jasoz. "Gaiñekora jaso eta jaurti zetsen burura".**GAIÑEKUAN EGON, ERABILLI, EUKI.-** Arma tiro egiteko prest euki, gatu jasota euki. "Gaiñekuan darabil beti eskopetia eta halakoren baten egin bihar dau okerra".**GAIÑETIK EGIN.-** Gogorrago erantzun. "Alperrik uezaba zan gogorra, gaiñetik egin zetsen bihariñak, errezoiz beteta ziralako".**GAIN HUTS EGIN.-** Bolari arteko esaera. Bola txirloak ikutu gabe gainetik pasatzea esan nahi du. "Halakoren batian gain hutsa egin bihar".

## ESKUTITZAK

### ESKERRIK ASKO SAHARAR ERREFUXIATUEI EMANDAKO LAGUNTASUNAGATIK

Beste urtebetez, behin saharar errefuxiatuendako elikagai bilketaren kanpaina amaituta, erakutsitako eskuzabaltasuna eskertu behar diogu herri osoari. Aurten, gainera, oso modu berezian, hain gogor zigortzen gaituen krisia gurekin izateaz gain, zoritxarrez solidaritatea Haitiko herriarekin konpartitu behar izan dugulako. Hala ere, iaz baino 600 kg. janari gehiago jaso dugu oraingoan, 3.700 kg.ak gaindituz; hau da, orain dela sei urte kanpaina honekin hasi ginetik inoiz jasotako kantitatetik handiena.

Eskerrak eman nahi dizkiegu ere kanpaina arrakastatsua izatea ahalbidetu duten lagun eta instituzio guztiei: Udalari, bereziki Brigadari; ikastetxeei; kolaboratzen duten dendei; kanpaina jakitera ematen duten komunikabideei; lan egiteko lokala lagatzen digunari -aurten Industrias Eve-; eta laguntza jaso eta bere helmugara ailegatzeko prestatzen duten bolondres guztiei.

SAHARAR HERRIAREKIN SOLIDARITATERAKO  
EUSKAL ELKARTEEN KOORDINAKUNDEA

*asteko***HEMEROTEKA***esaldiak*

"Hollywoodeko munduak Orson Welles mespretxatu zuen; horren adibidea da Steven Spielberg. Zinearen mekak ezusteko jaia eskaini zion Wellesi bere 70. urteurrenean, 'E.T.'-ren zuzendaria bere etxean antolatuta. Orsonek diru pixka bat eskatu zion 'On Kixote' lana amaitzeko eta Spielberg-ek ezetz esan zion. Welles sei hilabete geroago hil zen eta, handik gutxira, berak irabazitako Oscar baten estatutuak erosi zuen Steven-ek enkante batean Orson-ek eskatutakoa baino hamar aldiz gehiago ordainduz."

(Jose Maria Pou, aktorea)

"Egun osoa kanpoan ematen dugunok gorabeherarik txikiak ere atzematen ditugu eta zerbaiz zientifikoa da ikusi eta probatzea. Jela eta izotza ez dira gauza bera; gaztelaniazko 'hielo' jela da euskaraz, eta ez izotza. Izotza ihintz mota bat da. Jela beltza ere gaizki erabiltzen dute hedabideetako esatariek. Ikusten ez den jela dela diote, baina nik berrogeita sei urte ditut eta bizitza osoan hiru bat alditan bakarrik ikusi dut jela mota hori. Jela beltza da ilberrian eta haizea dabilenean egiten duena; eta ilberrian ez da jela beltzik izaten."

(Joxe Ramon Apaolaza, eguraldi iragarlea)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)

kutxa

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

## autuan

### 45.510 EUROKO SARIA

Primitibako zapatuko zozketak 45.510 euro laga zituen Eibarren, irabazleak Isasi 2an dagoen kioskoan apustua zigilatu ostean. Ez zen lehen mailako irabazlerik egon, baina bigarren mailan, Eibarkoaz gain, Arrasateko batek eta beste hiruk lortu zuten saria.

### EIBARTIK ERMURAKO ESPALOIA

Gipuzkoako Ezker Batuko Arantza Gonzalez batzarkideak Eibar eta Ermua arteko N-634 errepidean dagoen espaloia bariantearen 3. fasearen ondorioz ez mozteko proposamena aurkeztu du Gipuzkoako Foru Aldundian. Oinezkoek horrelako proiektuen aurrean lehenasuna izan behar dutela argudiatzen du.


### ARMERIAKO IKASLE OHIAK

Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkarteak martxoaren 27an egingo du urteko batzarra. Hitzaldiak eta omenaldi ezberdinak programatu dira egun horretarako eta Hotel Arraten bazkaria egingo da ostean. Hara joateko 40 euro ordaindu beharko dira 21010035140000045260 (Kutxa) kontuan izena eta promozioa azalduz. Informazio gehiagorako: 943203146 eta aaa@armeriaeskola.com

## Artile, Fitting Room moda topaketan

**ARTILE DENDAKO ISABEL SAN MILLÁN MADRILEN EGON BERRI DA**, zapatuan hango Salamanca auzoak hartu zuen Fitting Room moda topaketaren bigarren edizioan. Topaketa benetan berezia izan da, Petit Palace Art Gallery hoteleko gelak erabili dituztelako Venezuela, Puerto Rico, Belgika eta estatuko diseinatzaileen lanak erakutsi eta ezagutzera emateko. 36 diseinatzailek hartu dute parte topaketan eta ba-

koitzak bere gela erabili du, berak nahi zuen moduan girotu eta apaindu ondoren bere diseinuak erakusteko. Eta horri laguntzen, zuzeneko musika emanaldiak, txokolate lurrin-usainak eta beste hamaika bitxikeria. 2.600 lagun igaro ziren moda topaketa berezitik. Artile eibartarrak puntuzko ezkongaiendako soineko ikusgarriak aurkezteko erabili zuen hitzordua. Hurrengo edizioa Bilbon izango da, irailean.



Irudian, Artilek aurkeztutako modeloetako bat.

## Gaztetxearen 8. urteurren jaiak

**TALLARRA GAZTETXEA OKUPATU ZUTELA 8 URTE BETE ZIREN MARTITZENEAN.** Izan ere, 2002ko martxoaren 8ko goiz batean okupatu zuten Asua Erreka kaleko lokala eta harrezgero



Aurreko asteburuko bertso-afariaren irudia. / MAIALEN BELAUSTEGI


“okupazioa eta autogestioa” lantzen jardun dute bertan. Urteurrena ospatzeko txapligoak bota zituzten martitzenean, baina jaiak bihar izango du jarraipena, gauerako prestatu duten jaialdiarekin. Gaztetxean bertan, 22.00etan hasiko da jaiak eta, antolatzaileek denak koko-jantzita joateko deialdia egin dute. 00.00etan, berriz, karaokea hasiko da. Ordu eta erdiko iraupena izango duen karaoke saioaren ondoren DJ-en txanda ailegatuko da. Parranda gau osoan egongo dela aurreratu dute.

### Autodefentsa ikastaroa

Bestalde, datorren asteko zapatuak (hilak 20) emakumeentzako autodefentsa ikastaroa antolatu dute Tallarran, egun osorako. Plazak mugatuak dira eta izena emateko tallarra@squat.net helbidera idatzi behar da.

## Eibartarrak OHD-ren 8. saioan

**JUAN BAUTISTA GISASOLA MUSIKA ESKOLAKO KORO GAZTEAK BIHAR ERE** ETB-ko Oh Happy Day saioan abestuko du. Saioko arduradunek aditzera eman diguteenez, “Eibarko Korua arriskuan dago eta, etxera ez bueltatzeko, Andrea Bocelliren ‘Vivo per lei’ abesti italiarra abestuko dute”.



## JOSE RAMON ALBERDI ANSOLA

2010eko martxoaren 5ean hil zen, 78 urterekin

Familiaren partez, eskerrik beroenak gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunetan parte hartu duzuen guztioi.

**Bere aldeko meza martxoaren 14an, eguerdiko 12etan, San Andres Parrokian izango da.**



# anzorik anzo



Bariantearen lanek eragindako kea ere zabaldu zen aurreko astean Amañan. /Silbia Hernandez

## Apirilean hasiko dira barianteko tunelak egiteko leherketekin

**LAU LEHERKETA EGUNERO, GOIZEKO 09.00-ETAN ETA GAUEKO 21.00-ETAN BINA.** Horrela dago zehaztuta bariantearen 3. faserako planing-ean horretarako beharko diren tunel biak egiteko lanetan.

Tunel horiek (240 metrokoa bat eta 180koa bestea) Amaña gainean joango dira eta, norabide bakoitzeko hasierako hamar metroko tartea kenduta -hor makinaria erabiliko da indusketak egiteko-, beste guztia lehergailuekin zabalduko da. Leherketei dagokionez, bi motakoak izango dira: kanpokoak batzuk eta tunel barrukoak besteak. Erabaki dutenez, zeru zabalean egin beha-

rrekoak saihesteko asmoa dago eta makinaria erabiltzea lehenesten da; horrelakoak, egitekotan ere, astean behin bakarrik egingo lirateke.

Udala dagoeneko kaltetuak izan daitezkeen alde guztiekin bildu da: bai etxebizitzien jabeekin (dorreetakoak batez ere), Amañako ikastetxeko gurasoen elkartearekin eta aparkaleku barrik geratuko diren auto gidariekin. Ikusita Tiburtzio Anituan galdu diren aparkalekuak, dorreetako garajeen eraikinaren goiko plazoleta eta oinezkoendako aldapa aparkalekutzat erabiltzea erabaki da. Plazoleta hori, gainera, guztiz berrituko da eta aldameneko frontoia estaliko.



## 9 milioi euroko plaza publikoa

**Zezen-plaza estaltzeko eta plaza publiko, erabilpen anitzeko eta balio anitzekoa egiteko proiektuak** 9 milioi euroko kostua izango du. Horrez gain, lurpean ehun bat tokitako parkinga sortuko da eta Egiguren-tarreneko inguru horiek moldatuko dira.

Horiek dira baldintza teknikoen txostenean azaltzen diren ezau-garriak eta, behin txosten hori aurkeztuta, hiru hilabeteko epea izango dute arkitektoek euren proiektuak aurkezteko. Lanen gauzatze lizitazioa 2011n ateratzeko asmoa dauka Udalak eta urte horretan bertan egingo lirateke lanak.

Plaza publikoaz gain, 2.600 zaletu jasotzeko zezen-plaza moldatu ahal izango da bertan. Proiektu honen aurrean pozik aurkitzen da Miguel De los Toyos alkatea, urte osoan egongo delako plaza erabilgarri.



## Auzolaguneko langileak greban

**AUZOLAGUNeko LANGILEAK, IKASTETXEETAKO JANGELETAN LAN EGITEN DUTENAK,** greba mugagabea daude. Iazko kurtsoetik hona 11 greba egun egin dituzte, baina euren eskaerak entzunak izan ez direnez, astero egun bitan greba egingo dute. *“Enpresak ez dute hitzarmenean ipintzen duena betetzen eta negoziaketetan adarra jotzen digutela ematen du”.*


EAEEn 85.000 ume dira afektatuak, Eibarren milatik gora, eta 5.000 bat langile. Atzo Untzagan kontzentratu ziren grebalariak eta bertan adierazi zuten, *“Iturburun esan dute astelehenean jangela zerbitzua egongo dela, baina norbaitek grebalari bat ordezkatu-ko balu, guk salatu egingo genuke ilegala delako”.*

## eibar kalea

### Arrate Bidea kalea

Arratera igotzeko antzina erabiltzen zen bideari deitzen diogu Arrate Bide; hain zuzen ere, Legarretik gora doan errepedeiri eta albo bietan dauden lokal eta etxebizitzek betetzen duten tokiari. Barianteari esker Arratera joateko gutxiago erabiltzen bada ere, oraindik erabili daiteke bertara igotzeko. Azken aldian bertan egindako etxebizitza berriekin ingurua aldatuta dago.

**Pegora kopurua: 19. Erroldatutakoak: 281.**




asteko

3.700

datua

kilo elikagai jaso ditu aurtan Eibarren Saharar Herriarekin Solidaritaterako Euskal Elkartearen Koordinakundeak. Kopuru hori orain dela sei urte hasi zirenetik inoiz jasotako handiena da, iazko datuak 600 kilotan gaintzen dituena. Jasotako elikagaiak hamar lagunez osatutako taldeak prestatu ditu gure herrian Tindufeko kanpalekuetara eramateko.



## Elurrari aurre egiteko protokoloa

**EGUNOTAN ELURRA BOTA DUELA IKUSITA ETA IRAGARPENAK AINTZAKOTZAT HARTUTA**, Eibarko Udalak horrelakoetarako aurreikusita duen protokoloa ipini zuen martxan astelehenean, goizean goizetik, Udala Brigadako eta Mankomunitateko beharginez osatutako lantaldeak arazo gehien izan zezaketeen auzoetara bidalita. Suhiltzaileekin elkarlanean, Urki, Amaña, Legarre, Saratsuegi eta beste hain-

## ASTELEHENEAN EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA IZAN ZEN GOGOAN

eta, horren harira, hainbat ekimen antolatu ditu Udalak, Berrintasun Zerbitzuaren bitartez. Hilaren 8an bertan, eguraldiak ez bazuen asko lagundu ere, aurreikusita zegoen moduan eguerdian kontzentrazioa egin zen udaletxe parean, "Eibarko kaleek badute genero-identitate-rik?" zioen pankartaren atzean. Arratsadean, berriz, hirigintzarekin lotutako hitzaldia egon zen Portalean eta martxoaren 31ra arte gai horrekin lotuta dagoen materiala informazio-gune batean pilatu dute Juan San Martin liburutegian, nahi duenak kontsulta dezan. Eta bariakuaz geroztik eta martxoaren 28ra arte, "Neska Artean"



Astelehenean egindako kontzentrazioan eguraldiari ere aurre egin behar izan zioten bildutakoek.

izenburuko erakusketa egongo da martxan Portaleko erakusketa aretoan: Sara Alvarez, Garbiñe Arroyuelo, Virginia de Arriba, Raquel Félez, Tamara García, Zaloa Ipiña, Shakti Olaizola, Mariñe Pérez eta Raquel Samitier EHUKo Arte Ede-

rretako ikasleen artelanak izango dira ikusgai. Programazioa biribiltzeko eta Antzerki Jardunaldiekin elkarlanean, otsailean "La vida por delante" antzezlan eskaini zuten eta hilaren 17an "La omisión de la familia Coleman" taularatuko da.

## Hiri errehabilitazioaren inguruko batzarra

**AURREKO ASTEAN, EGUENEAN ERREHABILITAZIORAKO HIRIGINTZA ELKARTEETAKO KIDEEK** Mutriku Zabil jauregian batzarra egin zuten. Euskal Autonomia Erki-degoan dauden 16 elkarteetatik hamalau hartu zuten parte Mutriku batzarrean: Araba, Azkoitia, Beasain, Bermeo, Bilbo, Deba-goiena, Donostia, Durango, Oarsoaldea, Orduña, Portugalete, Ses-tao eta Tolosako elkar-teek, batzarra antolatzear arduratu zen Debabarreneko Debegesarekin batera. Aipatutako elkarteak urtean birritan elkartzen dira, eraikinen inguruko euren esperientziak elkartrukatzeko eta hirigintzako errehabilitazioa eta berrikuntza



bulatzeko helburuarekin. Zabil jauregian bilera egin ondoren, Mutriku alde zaharrean ibilbidea egin eta hantxe egin diren birgaikuntza lanak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten.


Errebalen, merkatu plazia zeguan lekuan, parking-a egingo dabe eta Udalak erabaki dau doako TAO ipintzia. Holan, edozeiñek bere autua han aparkau ahal izango dau ordu bitan eta kendu egin biharko dau orduan. Etorkizunian, halanda be, ordaiñezko TAO jartzeko atia zabalik lagatzen da.

## Zer begittantzen jatzu herrixan TAO ipintzia?



**M<sup>a</sup> ANGELES ALBIZU**  
68 urte  
etxeoandria

Ondo ikusten dot Errebalen egitia nahi dabena. Begittantzen jata kotxia ordu bittan zihar aparkatuta eukitzia nahikua dala, eta errekauren bat edo beste egitteko denpora nahikua emoten dabela. Gauzia dagan moduan egonda, ondo ikusten dot neurrixa.



**ESTEFANIA MENDIBE**  
76 urte  
etxeoandria

Idea ona begittantzen jata doako TAO ipintzia. Nik ez dakat kotxerik, baiña tira, badakitt arazuak daguzela aparkatzeko. Pentsatzen dot aurrera egin bihar dogula atzera baiño, orduan, holako neurrixak egokixak dirala begittantzen jata.

**IÑAKI IGLESIAS**  
35 urte  
komertziala

Eibar herri txikixa da eta arazuak dagoz kotxia aparkatzeko. Ni komertziala naiz eta natorren baxotxian euki dot arazua. Bestetik, pentsatzen dot hemenguak beste ikuspegi batetik ikusten dabela gauzia eta igual ez dabe ondo ikusten TAO ipintzia. Alde onak eta txarrak dittuan neurrixa da.



**FELIX LÁZARO**  
58 urte  
txoferra

Ondo ikusten dot Elgoibarko eredu jarraituz Errebalen ipiñi nahi dabena sistemian, danok dakagulako eskubidia aparkatzeko, denpora gitxi baterako behintzat. Ixa ez dot kotxia erabiltzen, baiña tira. Hurrengo pausua ordaintzia izango dala emoten dau, bertakuen dako kaltekua, baiña normala.



**Helbidea**  
URKIZU PASEALEKUA, 13  
Orbeako dorreetako  
1. solairua

**EIBAR**

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	12 Barne Medikuntza
6 Ortodontzia	13 Koloproktologia
7 Otorrinolaringologia	14 Erizaintza
<b>BERRIA:</b> Foto-depilazio Unitatea	15 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa

**ZERBITZU BERRIA  
EIBAR OSASUNDEGIAN**

**FISIOTERAPIA ESPEZIALIZATUA  
ZORU PELBIKOAREN  
ERREHABILITAZIOA  
UROLOGIA, GINEKOLOGIA,  
KOLOPROKTOLOGIA**

**Gernu inkontinentzia  
Haize inkontinentzia  
Inkontinentzia fekala  
Dispareunia  
Postpartoa  
Organo pelbikoaren prolapsioak  
etab.**

*Deitu ezazu eta informa zaitetz  
Eibar Osasundegian!*  
**943 12 02 00**

**Asier Serranoren****kolaborazioa****“Mongoliarraren” lezioa**


Parkeko eserlekuan inprobisatu zuen ohearen gogortasunarengatik baino, gaueko hotz jelatuaz kezu ari zitzaizkion hezur muinak oro. Goizeko ipar haizeak, Julio Cortazarrek aspaldi erabili zuen egunkariaren antzeko berripaperak ekarri zizkion.

Prentsa paper haiekin pilotatxoak egin eta jertsearen azpitik sartu zituen, gorputzeko hezetasunaren ihintza lehertzeko. Haietako orri batean ezagutu zuen: “mongoliarra”. Hamalau urterekin auzotik ihes egin zuenetik, ez zen “mongoliarraz” akordatu. Kanta iraingarrien laguntzaz harriak botatzen zizkieten... amak gisa hartan aurkitzen bazuen belarritik tiraka, haserre esplikitzen zion ezjakintasunaren kulturaren hari aringarritik, ume hori berezia bazen mongoliatik etorri zelako zela, eta mongoliarrek begiak itxiagoak zituztela, eta zaldi txiki baten beharra zutelako zebiltzala horren baldar. Iraganaren mamuak behartu zuen “mongoliarraren” elkarrizketa irakurtzera: “Down sindromea dugunok, esistitzeko eskubidearengatik egiten dugu aurrera”.


Min eta hotzak ahaztuta, bankutik altxatu zen, mongoliar hizkuntza txikitik ez ikasi izanaren damuaz.

**musika****Barrence Whitfield  
eta Petti &  
The Bloodyhotsak**

Petti zein Barrence Whitfieldon bano hobeto dakite zer den beste musikariekin lan egitea. Oso ezberdinak izanagatik, biak abeslari bikainak, indartsuak eta senadunak dira, eta disko batean batzeko ideia oso erakargarria zen. Deitu kodea, deitu feeling, deitu sena... baina hortik zer edo zer badagoela sinetsi beharko dugu.

**Kepa Junkera /  
Rolando Luna  
Fandango: Habana  
Sessions**


Kepa Junkerak Rolando Luna bere lagun kubatarrarekin eginiko lan berria aurkeztu du. Fandango izeneko proiektu honek 11 zati ditu eta Provença Sessionsen du aurreraria. Habana Sessions izena darama oraingo lan honen eta La Habana osoan grabatua izan da.

**Imanol Murua  
Loiolako hegiak**

Zer gertatu zen Loiolan? Nola landu zen hainbeste konplizitate eta josi hainbeste sare, hura posible egiteko? Eta nola joan zen guztia pikutara, denen nahia hura aurrera ateratzea baldin bazen? Galdera horietatik abiatu da egilea, 2005 eta 2007 arteko elkarrizketa-prozesuaren kronika xehe bat egiteko.

**Omar Nabarro  
Haragizko amoreak**

Amodiozko poemak dira liburu honetakoak: sentsualak eta erotikoak gehienak, hurbilekoenganako maitasunezkoak gutxi batzuk. Edorta Jimenezek lehendabiziko liburua oraintxe 25 urte argitaratu zuen, Omar Nabarro izengoitiaz sinatu zuen eta horixe baliatu izan du beti poesiazko lanetan.

**literatura**



*Birritan pentsatu gabe guztia laga eta Haitira jo zuten Mireya Merino eta Izaro Gerrikagoitiak urtarilaren 31n. Lurrikarak hondamendian laga zuen herrialde karibearra eta edozein laguntza gutxi zen (eta da) bertan. Hilabete egin du Mireyak bertan eta Izarok bere egonaldia luzatuko du denbora batez.*

**MIREYA MERINO:**

## **“Ez dut 40 milioi euroko diru-laguntza ikusi Haitin”**

**- Nola erabaki zenuten Haitira joatea?**

Iaz karreraren praktikak egin genituen Iza-ro eta biok (Gizarte Lanak ikasi genuen), Haurralde Fundazioarekin boluntariora egin genuen eta praktikak kanpoan egin genituen, Izarok Argentinan eta nik Dominikar Errepublikan. Batey batean ibili nintzen ni, Haitiarren komunitate batean. Orduan, han gertatutako hondamendia ikustean esan nuen: “Joan egin behar dut”. Gainera, justu eurekin berba egiten ari nintzela gertatu zen lurrikara. “Lurra dardarka dabil”, zioten. Hurrengo egunean esnatu nintzenez, Haitin gertatutakoaz jabetu eta joan behar nintzela erabaki nuen. Banekien Haurraldek Haitin beste proiektu bat zeukala, orduan deitu egin genuen eta hara joan ginen biak.

**- Zer aurkitu zenuten hara heltzean?**

Jacmelera joan behar ginen printzipioz, baina dena nahiko nahasia izan da antolaketari dagokionez. Orduan, Puerto Principeko kanpamendu txiki batera joan ginen aurrenekoz, hara heltzen direnentzat gaua pasatzeko balio duena beste kanpamendu batera joan aurretik. Ondoren, umezurtegi batera abiatu ginen. Han emergentzia proiektu bat egin behar genuen. Ume-

zurtegi hura erori egin zen, beraz, lursail bat aurkitu behar genuen, bertan karpak ipini eta umeak hara pasatzeko. Izan ere, oraindik ere lurlean dardarak izaten dira.

**- Zerk hunkitu zintuen gehien han?**

Pentsatzen nuen lurrikara zona batean besterik ez zela gertatu, baina autoan ordu bi egin eta bide guztian dena jausita ikusten zenuen, demaseko pitzadurak. Zaila da azaltzea, ikusi egin beharko litzateke. Ume-

**“Oraindik ere lurlean dardarak izaten dira”**



Mireya Merinok umezurtegia muntatzen lagundu du, batez ere.

pera joan ginenean esaten genuen, “hau da Haitin? Etorri ginenean ez zegoen ezer-eta!”. Horrek poztu egin gintuen.

**- Zer da gehien behar zena han?**

Dena. Nik uste dut orain karpak oso beharrezkoak direla. Gainera, horretarako emergentziaen haiti.wordpress.com webgunea ireki dugu eta edonork dirulaguntza egin dezake bertan. Hainbeste dirulaguntza bidali da bertara eta karpa bat lortzeko zoroaren pare ibili gara. Laguntza heldu da, bai, baina han ez ditut 40 milioi euro ikusi. Ez dakit nola banatu diren, baina karpa bat lortzeko nola ibili ginen ikusita... Zuzenean ez dut ikusi laguntza handirik eta pena ematen dit; izan ere, gero marineak, kasko urdinak eta hala-koak ikusten baitituzu, orain beharrezkoak ez direnak. Hasiera batean agian bai, nahasmen handia zegoelako, baina orain ez. Penagarria zen.

**- Nolako esperientzia izan da zuretzat?**

Iaz ere handik ibili nintzen eta han egunerokoa denez, ez duzu bizitakoan asko pentsatzen. Baina bueltatzerakoan bizitakoaz ohartzen zara. Oso esperientzia polita izan da eta berriro joango nintzateke. Jende izugarria ezagutu genuen, MOSCTHA eta MUDHArekin egin genuen lan eta Sonia Pierre zuzendariari Adore-Emakumearen saria eman berri diote Michelle Obama eta Hillary Clintonek. Berarekin egin genuen lan eta seguru nago hurrengo bakearen Nobel saria lortuko duela.

**ELKARRIZKETA OSOA:**  
[www.etakitto.com](http://www.etakitto.com)



Izaro Gerrikagoitia Haitin dago oraindik laguntzen.

zurtegian, bestetik, umeek hunkitzen zaituzte. Hango umezurtegiak dirua irabazteko asmokoak dira, umezurtegi asko dago eta gurasoak dituzten umeak egoten dira horietan baita ere. Abusu asko egoten da, zikin-zikin edukitzen dute dena GKEak pasatuz gero dirulaguntzak jasotzeko eta negozioa egiten dute horrekin.

**- Joan zinenetik bueltatu zarenerako hobetu da Haitiko egoera?**

Askok baina ez kanpoko laguntzarenatik, barruko jendearengatik baizik. Heldu ginenean dena zikin-zikina zegoen, zaborrez beteta... oraindik ere, baina neurri txikiagoan. Bertako 5.000 gazte bolondres zegoen eta horiek hasi ziren dena garbitzen, kanpamenduetan komunak zeudela ere ikusi genuen (txosnetan ipintzen dituztenen antzekoak) eta kaleetan negoziak martxan jartzen ikusten ziren. Umezurtegitik Puerto Princi-

*Gerra Zibillaren gaiñeko pasadizuak hamaika modutan kontau deskuez oiñ arte: batzuk zuzenian protagonisten ahotik jaso izan dittugu, sasoi hartako argazkirik be ez jaku falta, baiña seguruenik iñork gitxik jakingo leuke Gerra Zibillian erabilli zittuen abioi, blindatu eta bestelako armen gaiñeko informaziño zihetza emoten. Gaur 19.00etan Portaleko erakusketa gelan zabalduko daben erakusketiak horretxek erakutsiko deskuz, Bernardo eta Paco Pérez Guenaga anaixak egin dittuen maketeri esker. Gerra jolasa ez dala ondo jakinda be, oinguan jolasteko elementuak, arte bihurtuta, lagungarriak izango dira askoren sufrimendua hobeto ulertzeko.*

**P**erez Guenaga anaixak gaur inaugurauko daben erakusketia hillaren azken eguneraiño egongo da ikusgai, betiko ordutegixan: martitzenetik domekara, 18.30xetatik 20.30xetara. Gurian lehelengoz ikusgai egongo dan erakusketan "Gerra Zibillaren gaiñeko bilduma zabala ikusteko aukera" egongo dala aurreratu dabe maketen egilliak. Erakusketa kuriosua izango dala, behintzat, nekez ukatu geinke. Zenbatetan topatzen dira afiziñua alkarrekin konpartitzen daben anaixa bi, kasu honetan, gaiñera, bikixak



# Gerrako armak artelan bihurtuta

eta batera erakusketia ipintzen? Pacoren biharra lehendik be ondo ezagutzen da herrixan, Eibarko Artisten Elkarteko ki-diak kuadrak margotzen ditualako eta, horrez gain, jaiotza ikusgarriak behin baiño gehixagotan erakutsi dittu-eta. Gaiñera, Alfa Arten dihardu biharrian ete bere eskuetatik era guztietako artelanak pasatzen dira egunero. Halanda be, biharretik urtenda, modelismuaren gaiñeko zaletasuna garatzeko tartia topatzen dau.

Modelismua umetatik daken afiziñua dala azaldu deskue anaixa bixak: "Pacori amaitsu barik eguan blindaua oparitu zetsen eta ha amaitziari ekin zetsan. Gustau egin jakon eta, orduan, zaletasun haundixa zekan lagun baten koleziñua ikusteko aukeria izan genduan. Eta horren ostian, berak egin-dako guztia ikusi ondoren, akabo, segitzeko griña piztu jakun eta gaur arte!".

Beste gerra batzuetako abioi, blindatu eta bestelakuak

dittuen arren, erakusketaren ardatza Gerra Zibilla izatia erabagi dabe eta, horri jarraituta, 26 abioi eta 34 blindatu ipiñi dittue ikusgai. Euren berbetan, "ikusiko diran modelo batzuk Gerra Zibillaren aurretik fabrikatutakoak dira, baiña edozelan be, sasoi horrekin zuzenian lotuta dagoz, bertan erabilli zittuelako".

## Alde didaktikua

Maketak egittiaz gain, modelismuaren nundik norakuak azalduko dittue erakusketan, fabrikaziño prozesu osua azaltzen daben panelekin lagundu dittuelako maketak: modelo bakoxtaren gaiñeko esplikaziñuak dagoz eta, horrez gain, pieza bakoxta zelan egitten dan, pausorik pauso jarraitzeko aukeria dago, argazki eta guzti.

Abioia edo blindatua izan, bardin da, modelismuak bada-kaz konstante batzuk: "Erregular, modelismorako denda espezializatuetan saltzen dittue



Umetatik euki dabe modelismua afiziño moduan anai bixak. / SILBIA HERNANDEZ

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

## NTRA. SRA. DE BEGOÑA

### EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:  
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:  
☎ 943 201095 fax: 943 202564

## EMAKUME ETA GIZON MODA

# Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33

ZULOAGATARREN, 7




maketa bakotxerako bihar di-  
ran elementuak. Pieza guztiak  
soltatzen zoiaz eta, ondoren,  
akarrekin ipintzen, modelua  
osatu arte. Modelo guztiak eta  
horrek amaitzeko bihar dozun  
guztia holako dendetan topa-  
tzen dozu normalian, baiña,  
bestela, badago beste aukera  
bat, nahi den modeluaren gai-  
ñeko informaziñua batu eta  
norberak kartoian piezetarako  
patroiak eginda eta, ondoren,  
bestiekin moduan, ebaki eta  
pegauta”.



Pazientzia asko eskatzen dau modelismuak, baiña ez ei da afiziño karua. / SILBIA HERNANDEZ

### Denda espezializauetan salgai

Iñoiz piezaren bat ondo kos-  
tauta lortu dabela aitortu des-  
kue: “Bilbao ametralladorea



lortzeko lau urte pasau gen-  
duazen, resinaz egindako 4  
pieza lortzeko, Alemaniatik  
bialdu zittuen. Interneten be  
holakuak lortzeko aukeria ego-  
ten da”. Edozelan be, zaletsun  
hau karua ez dala esaten da-  
be. Hori bai, pazientzia ederra  
bihar dabela eziñ izan deskue  
ukatu, “batez be soldadua  
pintatzen jarduteko orduan,  
holako tamaiñan begixak mar-  
gotzeko eta bestela be, baiña  
lupa berezi batzuren lagunta-  
suna dakagu. Eta argittasuna  
be inportantia da. Bestela, ez  
da toki haundirik edo berezirik  
bihar holako maketak monta-  
tzeko, eta gordetzeko orduan  
be ondo antolatzeko aukeria  
emoten dabe, kajetan gorde-

tzen dittugu eta ez dabe larre-  
gi okupatzen”. Erabiltzen dit-  
tuen eskalak normalizauak  
izaten dirala argittu deskue:  
“Abioietan 1:72 eta 1:48 eta  
blindauetan 1:72 eta 1:35”.  
Badagoz beste eskala batzuk,  
baiña horretxek dira gehixen  
erabiltzen diranak.

Horrez gain, modelo bako-  
txak zittuen apaingarririk, dis-  
tintibuak, koloriak etab. errea-  
lidadiakin bat egitteko ahalegi-  
ña egitten dabela kontau des-  
kue, horretarako euren esku  
daken materixal grafiko-histo-  
rikuaz baliatuta. Eta hortxe  
emoten detse ikutu personala,  
gero maketa bakotxa hartuko  
daben eszenarixuaren osake-  
tarekin batera.

### Nagusixen emozioñua

Holako erakusketa osotua  
erakusten daben lehelengo aldi-  
xa izanda be, aurretik euren la-  
naren zati bat ikusteko aukeria  
egon da. Bestiak beste, 2007-  
xan Intxorta alkartiarekin alkarla-  
nian maketetako batzuk erakutsi  
zittuen. Memorixa historikua  
errekuperatzeko taldiak antola-  
tutako hartan Gerra Zibilla zuzen-  
ian bizi izan eben batzuk egon  
ziran eta, “emozionau” egitten  
zirala kontau deskue: “Izan be,  
abioien kasuan, adibidez, eurak  
buru gaiñetik pasatzen entzuten  
zittuen, eragitten eben sarraski-  
xa ikusten eben, baiña norma-  
lian ez zittuen ikusten. Gerria bi-  
zi izan ebenak gero eta gitxiago  
dira, baiña normala danez, bizi-  
rik daguzenak oindiok be emo-  
zionau egitten dira holakuak iku-  
si eta gogoratxian”.

Maketetarako testuinguru  
belikua aukeratu badabe be,  
euren interesa historikua izate-  
tik haratago ez doiala argi laga  
dabe, euren zaletasuna dan  
modelismorako aitzakixa, hain  
zuzen be. Eta gerriak bape era-  
karritta be, gaurtik aurrera Por-  
taleko erakusketa aretuan ikus-  
gai egongo diranak artelanak  
dirala, horretan dudarik ez dau  
eukiko ikusliak.

100 m<sup>2</sup>ko autozerbitzua

altzariak. menajea. bainurako osagarriak. ehungintza.  
argiztapena. opari pertsonalak. osagarriak.

**OKora** eibar  
Isasi, 18 943 53 12 59

IGOITZA NAGUSIA  
Bilboarrizta 20 - behea, eskuma

**M FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del  
Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errozketa labea  
Egoibonari (Signo poligonari).  
Partikular: mutua eta desaguri enosi zerbitzuak  
Koroak - Eskelak - Urtumansko sikelak  
Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen zaizgu  
Nazio eta Nazioarteko Iratziak

**Mugica Ehorzketa**  
Puzteak eta Iratziak

TELEFONOA (24 ORDU)  
**943 201 951**

## TEEN- AUEA



Foballa hamaika jokalariko talde bien arteko lehia da, baloia etsaiaren sarea sartzea da helburua eta gol gehien sartzen dituenak da irabazlea. Baina hori guztia zuzen jokatu dadin pertsona bat arduratzen da: epailea. 22 urteko Jon Ander Ulaizia eskarmentu handia dauka horretan eta baita etorkizun polita ere.

### JON ANDER ULAZIA, arbitroa: “Jokatzen lagatzen duen epailea naiz”

**- Noiz hasi zinen arbitro bezala?**

14 urterekin hasi nintzen. Foballean jokatzen nuen, baina esan liteke ez nintzela oso ona (barreak). Foballa asko gustatzen zitzaidan, horrekin harremana zuen zerbaitetan jardun nahi nuen eta epailea izateko aukera ikusi nuen.

**- Zelakoa da epaile baten aste normala?**

Bilbon ikasten nabilenez ez daramat entrenamenduen kontua oso modu zorrotzean, baina Donostian daudenean astean birritan entrenatzen dute prestatzaile fisiko batekin. Nahiko profesionalizatuta dago. Barixakuetan arbitratuko ditugun partiduak jakitzen ditugu, asteburuan bi, eta partidu horietan arituko diren taldeak aztertzen ditugu neurketarako prest joateko. Partiduetara ordu bete lehenago joaten gara gutxi gora behera, aktak eta abar prestatu eta neurketari ekiten diogu.

**- Nola definitiko zenuke zeure burua epaile moduan?**

Jokatzen asko lagatzen du-

dan epailea naizela. Ahalik eta falta gutxien pitatzen ditut eta kontaktu fisikoa egotea uzten dut, zintzoa den bitartean. Azken urteetako estatistikak begiratuz esango nuke ez naizela txartel-zalea, baina aurten estatistikak apurtu ditut (barreak).

**- Gogorra da arbitroa izatea?**

Uste dut gogorragoa dela kanpotik begiratuta barruan egotean baino. Kanpotik beltzez jantzitako tipo bat ikusten da, 22 jokalariren artean engainatzen saiatzen direna eta denak aurka dituenak. Baina barrutik ikusita jokalaria eta epailearen artean lankidetzaren harremana dago, pentsatzen dena baino gehiago.

**- Gazteak animatzen dira arbitroak izateko?**

Azken urteetan epaile falta izan dugu, baina orain asko gaude. Eibarren zortzi gaude adibidez, eta orain dela gutxira arte ni nintzen bakarra. Donostialdean ere asko hasi dira. Kasu gehienetan jokalaria dira, epaile izatea eta jokatzea uzartzen dutenak.





● **tartak**

● **enkarguak**

**etxera**

Bidebarrieta, 28

☎ 943 20 79 73



# Teknologiaren eremuan ausnartzen

*ProiektEIBAR sariak banatu ziren joan den asteburuan Eibarko Ingeniaritza Eskolan. Lan interesgarriak aurkeztu dituzte parte-hartzaileek aurtengo edizioan eta Unibertsitatekanpoko ikasleek euren dohainak erakutsi dituzte horrela. Erretereria eta Gasteizera joan ziren sari nagusiak.*

Ukimen-pantailarekin kontrolaturiko errobot zelatariarekin irabazi zuten Erretereriako Don Bosco ikastetxeko Asier Arruabarrena eta Aitor Vitoriak Goi Mailako Heziketa Zikloetako ProiektEIBAR saria. Pello Alvarez EHUKo laborategiko teknikariaren berbetan, "errobot honek haririk gabeko kamera bat du eta honen bidez edozein bazter ezkutuko irudiak ikus daitezke". Material informatikoa erosteko 600 euro lortu zituzten garaipenagaitik, baina ez ziren ikastetxe bereko saritu bakarrak izan, Alberto Zufiriak 'Hainbat hizkuntzatan ahotsare-

kin kontrolaturiko errobot hexapodoa lanarekin 3. postua lortu zuelako (200 euro).

Goi Mailako Zikloetakoen mailan Bergarako Miguel Altunara joan zen 2. saria, Ander Zenitagoiak 300 euro lortu zituen 'Invernadero' izeneko lanarekin'. Hirugarren postuan, bestetik, Don Bosco ikastetxekoekin batera Armeria Eskolako Alexander Villarrubia eta Ander Baranda ere saritu zituzten 'Marketing dinamikorako web-aplikazioa' lanarekin. "Esan beharra dugu oso maila oneko proiektuak aurkeztu dituztela, batez ere Don Bosco eta Miguel Altunakoen", aipatu du Alvarezek.

Batxilergoan ikasten dihardutenei dagokienez, Gasteizko Jesus Obrero ikastetxeko Maialen Ruiz eta Irati Uriartek lortu zuten garaipena 'Qr code: turismoa egiteko bide berri eta berritzailea' lanarekin. Bigarren saria ere leku berera joan zen, ikastetxe bereko Silvia Nuñez, Sara Sevilla eta Laura Ramos saritu baitzituzten 'Aura, zientzia eta mistizismoa gaixotasunen sendakuntzan' proiektuarekin.



Sarien irabazleak eta Ingeniaritza Eskolako ordezkariak talde argazkian. / MAIALEN BELAUSTEGI

## Lehiaketa ezagutzera eman

Pello Alvarezek azaldu duenez, "ProiektEibarren helburua esparru zientifiko-teknologikoan proiektu eta lanak sustatzea da, eta unibertsitatekoa ez den hezkuntzan teknologia-eremua bultzatzea. Hitz batean, unibertsitateko ikasleak ez diren artean har teknologikoa sortzea".

Aurkeztutako lanen maila altua azpimarratu du Alvarezek. Aurten, gainera, iaz baino lan "gutxi batzuk gehiago" aurkeztu dira. "Gure lehiaketa berria izanik (orain dela hiru urte jaio zen), apurka-apurka ezagutzera ematen ari gara. Aurten

Erretereriako Don Boscokoak etorri dira eta faltan bota ditugu UNI Eibar-Ermuako gure bizilagunen lanak". Izan ere, eibartik Armeria Eskolakoak bakarrik aurkeztu dira, "UNIoak beste urteetan aurkeztu izan dira".

## Ateak zabalik


Zapatuan ateak zabalik jardunaldiak egin ziren Eibarko Ingeniaritza Eskolan. Horrela, goizean bertako instalazioak ezagutzeko aukera egon zen eta, bide batez, Zientzia eta teknologia azoka ere egon zen ikusgai. Amaieran aurrez aipaturiko ProiektEIBAR lehaketaren sariak banatu ziren.

**La Movida eibarresa**  
Kirola atseginez egunero Borja Rodriguezekin, arratsaldeko 3etatik 4etara

**90.7 Fm**

## Udaberri Sariarekin hasiko da Eibarko txirrindularitza egutegia

**DOMEKA GOIZEAN JUNIOR MAILAKO PROBA HORRE-TAKO XXXII. EDIZIOA JOKATUKO DA** eta aurten, gainera, Euskal Herria Torneorako baliagarria izango den lehenengo proba izango da. Horrek partaideen kopurua 25 talde eta 160 txirrindularira igoko du. 80 kilometro eta erdi izango ditu lasterketak, 10.30etan Untzagatik irten eta (gutxi gorabehera) handik ordu bira, 12.30ak inguruan, Bidebarrietako 2 zenbakiaren parean amaitzeko. Azken metroak, Loiolako bidegurutzetik aurrera, kontrako zentzuan egingo dituzte txirrindulariak, Karmen, Urkizu eta Bidebarrieta kaleetatik. Eibartik Oikiaraino joango dira txirrindulariak, Itziariko gaina bitan pasatuz, Eibarrera bueltatu aurretik.



## Nekane Tejedor igerilaria Espainiako minimatik segundo bakarrera

**GETXOKO IGERILEKUETAN ABSOLUTO, PROMESA ETA JUNIOR MAILETAKO** Euskal Herriko txapelketak jokatu ziren aurreko zapatuan eta domekan. Urbat-Urketronik-eko Nekane Tejedorrek junior mailako txapela jantzi zuen braza modalitateko 200 metroetan eta 2.a izan zen absolutoetan: minutu bi eta 47 segundoko

denborarekin, Espainiako txapelketarako minimaren segundo bakarrera geratu zen. Markel Alberdi lau aldiz igo zen podiumera, guztietan bigarren moduan: libre erako 50, 100 eta 200 metroetan eta tximeleta erako 50ekoan. Aitzol Arrillaga, bestalde, 4.a izan zen bizkar modalitateko 50 metroetan.



## Emakumeendako nazioarteko judo torneoa Eibarren

**BIHAR EMAKUMEENDAKO NAZIOARTEKO XV. TORNEOA JOKATUKO DA** Ipuruak kiroldegian, hainbat herrialdeetako ordezkarien parte-hartzearekin. Aurreko asteburuan, bestalde, jiu-jitsu Espainiako txapelketa izan zen jokoan Arganda del Rey herrian eta bertan Kalamuako Jon Montielek eta Aitor Villalbak hartu zuten parte. Montielek brontzezko domina eskuratu zuen eta Villalbak ezin izan zuen lortu 2. aukerara pasatzea.

## Arratek haizezko errotei egin beharko die aurre biharkoan

**HORRELAKO ZEOZEREN AURREAN AURKITUKO DA JULIAN RUIZEN TALDEA BIHAR, 18.30-ETATIK AURRERA, CIUDAD REALEKO QUIJOTE ARENAN** jokatu beharreko partiduan. Europako gaur egungo txapelkunak 46 partidu jarraian daramatza ligan denak irabaziz, azkena aurreko denboraldian Ipuruan bertan Arraterekin galdu zuenetik. Hori dela-eta, porrota jasoko duela besterik ezin da espero Arrateren jokalarientzako; neurketa zaila baino zailagoa asteburu honetakoa eibartarrentzat. Azken jardunaldian, bestalde, garrantzi handiko garaipena eskuratu zuten Ruizen mutilek Alcobendasen aurkako neurketan (25-24), 1-7 galtzen joan eta gero.



## Harsányik kontratua eten du

Viktor Harsányi hegalekoak Arrate lagako du Balonmano Huescara joateko. Denboraldi birako sinatu du eta Aragoiko taldearekin Asobal ligara igotzen saiatuko da. Petricevic etorri zenetik, entrenatzaileak gutxitan ipini du jokoan eta Arratek joaten lagatzea erabaki du.



## Tarsicio eta Peña 2.ak Hondarribian

**ANDER VILARIÑO ETA ANGELA ARREBAK HARTU ZIEN AUREA** Escudería Eibarko ordezkariak hilaren 6an jokatuak Hondarribiako rallysprintean. Iban Tarsicio eta Iñigo Peñaren Ford Escort Cosworth-a 51 segundora sailkatu zen 2. postuan eta Mario Pérez eta Javi Ortega 3.ak minutu eta 8 segundo gehiago behar izan zituzten. Aitor Arrieta-Oihane Ituarte eta Jorge Rodríguez-Markel Agirre eibartarrak ere izan ziren proban.

## Concepto Createch-ek Laskorain liderra hartuko du bihar


**BIHAR ELGOIBARKO KIROLDEGIAN, 16.00-ETAN HASITA, "FINAL" ANTZERAKOIA JOKATUKO DU** areto-foballeko Concepto Createch taldeak mailaz igotzeko sartuta dagoen borroka horretan. Laskorain liderrak zazpi puntuko aldea kentzen dio hamar jardunaldiren faltan eta

behar-beharrezkoa dute garaipena Debabarrenakoek. Horregatik, zaletuen eta jendearen laguntasuna behar du gure eskualdeko talde nagusiak biharko, 1. itzulian Tolosan merezita irabazitako partiduen (2-3) emaitza -garaipena, behintzat- errepikatu dadin.

## Domekako Eibar-Alavés partiduan lidergoa lortu dezakete etxekoek

**ORAINGOAN EUREN ARTEAN 13 PUNTUKO ALDEA BADAGO ERE,** urtero dute zeozer berezia Gasteizkoen eta eibartarren arteko neurketek. Azken denboraldian talde biek galdu zuten maila eta igotzeko lehian izatekotan beharko luke, baina Viaderoren mutilek orain arte askoz hobeto moldatu dira eta igoerako promozioa jokatzeko txartela eskura dute ia; gasteiztarrek, aldiz, orain arte baino joko hobea erakutsi beharko dute 4. postuaren bila diharduten borroka horretan irabazle izateko. Hala ere, eibartarrak faboritoak izan

arren, Alavésekoak ere noizbait erreakzionatu beharko dute eta azken emaitza ez dago hain argi. Partidua etzi jokatuko da, 17.00etan, eta Eibar KEko bazkideek aukera izango dute bost eurotan beste sarrera bat lortzeko. Gaur da azken eguna taldearen bulegotik pasatzeko (17.00etatik 19.45etara).



Altuna da, alde handiz, taldeko goleatzaile nagusia.

## Eibartarrak Transgrancanarian

**KANARIA HANDIAN JOKATUTAKO MENDI LASTERKETAN** lau proba izan ziren jokoan, distantziaren arabera banatuta: 25, 43, 92 eta 123 kilometrokoak. Uhartea hegoaldetik iparraldera zeharkatu



zuen probak, tartean Pico las Nieves (1.941 metro) eta Roque Nubio (1.750) gainak gaindituz. Luis Mari Ugarte eibartarrak proba luzeenean hartu zuen parte, 41. postuan sailkatuz (7.a master 40an). Ondoko argazkian, bera eta Patxi Salido, hau ere eibartarra.

## Xala eta Gonzalezen artekoa Astelenan


**IPARRALDEKO AURRELARIEN ARTEKO LEHIA JASOKO DU DOMEKAKO JAIALDIAK,** profesional mailako binakako txapelketako azken faseko 2. jardunaldian, Laskurain soraluzetarra eta Zubieta lagun dutela. Jaialdia osatzeko, lehenengo partiduan Retegi Bi eta Merinok Idoate eta Arrutiren aurka jardungo dute eta, amaiera-koan, Berasaluze IX.a-Cecilio eta Ongay-Urberuaga, nor baino nor.



## Eskiko Somporteko liga bi bereganatu dituzte herriko eskiatzaileak

**INFANTIL MAILAKO NESKEN ZEIN MUTILEN SOMPORTEKO LIGAN, KLUB DEPORTIBOKO ORDEZKARIAK** izan dira nagusi eta, horrela, Elene Gisasolak (domekan 2.a) eta Julen Chacónek (domekan 5.a) bost probez osatutako txapelketak bereganatu zituzten.

Bezperan, zapatuan, Somporten bertan, Gipuzkoako txapelketak izan ziren jokoan, klasiko modalitatean; eta hor, eskola mailako kilometro bi eta erdiko probetan, nesken artean Jone Saez izan zen onena eta Maitane Fariñas brontzezko dominaren jabe eta, mutilen arteko lehian, Markel Goimendiourrutiak 5. postuan amaitu zuen. Seniorretan, Alberto Bagliettok 10 eta 27 km-ko probetan hartu zuen parte.



## Mailari eusteko aukera zabaldu zaio Eibar Rugby Taldeari

**DENBORALDIKO GARAIPEN ARGIENA LORTU ZUTEN ISASAREN MUTILEK AZKEN ASTEBURUAN** sailkapeneko 4. postuan dagoen Oviedo talde indartsuaren aurrean (29-3); emaitza horrekin, sailkapeneko azken postua durangarrei laga die. Lau entsegu eskuratuz, Hierros Anetxeok, gainera, sailkapen nagusirako puntu bonusa lortu zuten. Orain hil edo biziko partidu bi geratzen zaizkie eibartarrei: hilaren 28an Hernani liderra hartuko dute Unben eta apirilaren 11n Durango aurkari zuzenarekin izango dira lehian. Horko emaitze-kin beste aurkari bat aurreratzea lortzen badute, Eibar Rugby Taldeok mailari eutsiko liokete promozioa saihestuz.

## CELIA ESTURO MUÑO A (2010-II-28)

*“Gure Bihotzeko Amatxo maitea, maite zaitugu hasieratik, orain eta betirako. Agurrik ez, gero arte baizik. Lagundu eiguzu, beti bezela. Dana maitasuna zara”*

ZURE SENIDEAK

**BERE ALDEKO MEZA OSPATUKO DA DOMEKAN (MARTXOAK 14) EGUERDIKO 12etan, SAN ANDRES ELIZAN.**



Antzerki jardunaldiak amaitzen doaz. Esaten da onena amaierarako lagatzen dela; baliteke hori gezurra ez izatea aurtengo edizioan. Lipusen zuzendaritzapean eta Gerediagak idatzita antzezlan egongo da ikusgai Coliseoan martxoaren 18an.

**ANDER LIPUS (aktorea):**

## "Amonarena egiteko sasoi aproposena iritzi nion"

**- Bost urteko prozesuaren emaitza da Babiloniako Lo-reak. Nola, bada, bost urte?**


Antzerki talde moduan kooperatiba bat ginen eta talde profesional moduan eustea gaitza da; horren tirabiren ondorioz gauzak beste modu batera egin nahi genituen eta Artedrama izeneko euskarri edo enpresa ireki genuen, alde artistikoa eta ekoizpena desberdintzen dituen. Gauzak lasai egin nahi genituen, maila profesionalean urtero obra bat egiteko dagoen exigentziatik kanpo.

**- Argia astekarian honekin laburtzen zenuen antzezlanak: "Nire amona tristeziak hil da". Azaldu dezakezu hori?**

Aurreko lan batean pertsonaia indartsu bat egin nuen, txaman bat, eta beste energia bat nahi nuen adierazi: amonarena egitea pentsatu nuen. Niretzat amonarena egiteko sasoi aproposena zela iruditzen zitzaidan. Markinako nire irudira jo nuen. Madrileran joan nintzenez bera ohean sartu eta sei hilabete eman zituen bertan, eta azkenean tristeziak hil zen. Nahi nuen irudikatu Madriletik itzuli nintzenez nire amonak laga zuena. Gauza gutxi laga zituen: gurutze bat, Sabino Aranaren argazki bat eta armairu bat. Horrek demaseko kontraesana sortu zidan; izan ere, bizitza modernoan denetarik daukagu, eta xumetasun horrekin nere amona nola joan zen ikustea sentimendu horiekin, bizitza egindakoa eginda, jada joan nahi zuela. Hori da obran kontatzen dena, beti ere modu groteskoan.

**- Oso lan pertsonala dela esango zenuke?**

Bai, baina aldi berean taldean eginiko lana da. Horregatik joaten dira gure ekoizpenak



nahiko geldi, disziplina asko batzen ditugulako eta denok batera aritzen garelako lanean. Behin istorioa ulertzen dugunean, denok aportatzen dugu zerbait. Denon artean egiten dugun konposaketa da, nahiz eta niri zuzentzea tokatu.

**- Zer ekarri dizu lan honek zure ibilbidean?**

Beste sasoi bat da niretzat eta isiltasunari demaseko garrantzia ematen diodala uste dut. Orain arteko obretan nola-baiteko indarra zegoen, erritmo handiarekin, baina lan hau geldoagoa da. Ez dakit adina izango den. Bestetik, oraingo zine eta telebistan heroi asko agertzen da; nik beti jarraitzen dut pertsonaia antiheroikoak egiten. Trama oso simplea egitea ere nahi nuen, ohean sartzen den amonarena eta gutxika hiltzen doana, gaur eguneko artificio artistikoetatik kanpo eta tentsioari eutsiz pausarekin; obra helduago bat dela deritzot. Beste urrats bat da erreallitate linguistikoari fidelagoa izan gara; zentzu horretan, amonak markinar 'zerratu-zerratuan' egiten du berba, Hegoak pertsonaia euskera batuan, politikoa euskera traketsan eta Caceresko batek euskera eta gaztelera nahastuz.



## 3'2 milioi euro kultura sustatzeko

**ASTELEHENEAN EMAN ZITUZTEN EZAGUTZERA 2009. URTEARI DAGOZKION KULTUR ARLOKO DATUAK**, Jose Luis González kultura teknikariak eta M<sup>a</sup> Jose Telleria Euskara-Kultura zinegotziak egindako agerraldian. Iaz kulturarekin lotutako ekitaldi eta jardueretan 1.900.000 euroko inbertsioa egin zela argitu zuten prentsaurrekoan, baina liburutegi, musika eta bestelako arteekin lotura zuzena dutenei jaiekin, euskerarekin eta gazteriarekin lotutakoak gehituz gero, horietan guztietan erabilitako kopurua 3.200.000 eurotara ailegatzen da. Bataz beste, eibartar bakoitzeko ia 118 euroko inbertsioa egin zuen Udalak.

Antolatutako jardueri begiratu gero, 647 ekitaldi zenbatu dituzte Udal arduradunek. Horietatik 414 zuzenean Udalak antolatutakoak izan ziren eta beste 233 herriko kolektiboen eskutik garatu ziren. Antzerkiarekin zerikusia duten emankizunekin hasita, helduendako 35 antzezki zuzen eta umeendako beste horrenbeste egin ziren, 3 dantza emanaldiz gain. Cielito Musika Bandak eta Usartza Txistulari Bandak 21 kontzertu eskaini zituzten eta, horrez gain, beste talde batzuen eskutik 23 emanaldi gehiago egin ziren. Zine komertziala ematen hasi zirenez geroztik, bestalde, helduendako 292 eta umeendako 17 pelikula eman zituzten. Horiei 40 erakusketa, 73 hitzaldi, 74 ikastaro, 34 lehiaketa eta azoka bi gehitu behar zaizkie. Kopuru horiek aztertu eta, ekitaldi bakoitzean jendearen harrera nolakoa izan den ikusi ondoren, aurtengo kultur egitaraua osatzeko orduan aldaketak egon daitezkeela aurreratu dute.



Goruntz-eko partaideak eta beste eibartar batzuk Nueva York-era egindako azken bidaietan.

## Goruntz abesbatzaren kontzertua

**GORUNTZ ABESBATZAK BIHAR BIASTERIN ABESTUKO DU, MARTXOKO ZAPATUETAN** bertan izango diren abesbatza topaketei hasiera ematen. Kontzertua San Juanen elizan, Virgen del Pilar kapera izango da, 20.00etan. Eibartarrek pozik onartu dute gonbidapena eta kontzertuan abesti sakroak, Gaztelako folkloreakoak, Hego Ameriketako

abestiak eta, nola ez, kantu euskaldunak eskainiko dituzte aurreratu digute. Kontzertua amaitzean, berriz, M<sup>a</sup> Arrate Agirre eibartarraren Erletxe nekazal-etxean mokadutxo hartzeko aukera izango dute. Gonbidapena eskertzeko, hainbat abesti eskainiko dituzte nekazal-etxean, euskerazko kantuen erreperitorioari garrantzi berezia emanez.



## Ikastolari buruzko erakusketa eta jaialdia

**JUAN ANTONIO MOGEL IKASTOLA SORTU ZELA 50 URTE BETE ZIREN ATZO ETA, HORREN HARIRA,** aurreko barixakuan erakusketa inauguratu zuten Untzagako jubilatutuek. Bertan Eibarko ikastolaren mende Erdiko historiari errepaso ematen zaio, horretarako argazkiak zein bestelako elementuak erabiltzen. Erakusketa domekara arte egongo da martxan, gaur 18.30etatik 20.30etara eta zapatu eta domekan, berriz, 12.30etatik 14.00etara eta 18.30etatik 20.30etara. Inaugurazio ekitaldian irakurritako testuak jarraituta, *“orain dela 50 urte, guraso talde batek, ia dena aurka zegoela zirudieneko ere, euskara ardatz, euska-*



*Etzira arte egongo da zabalik aurreko barixakuan zabalduko erakusketa. / MAIALEN BELAUSTEGI*

*raren inguruan bilduta, eronka guztiei aurre eginez, sortu zuten proiektuak, ikastolak, 50 urte betetzen ditu. Eskerrak ikastolaren lehen harria jaso zuen guraso taldeari, eskerrak ikastola honen ibilbidea izerdiz eta loraz hornitu duen guztiari, eskerrak, ezin ahaztu, lehen andereñoa izan zen Mari Tere Munduateri”.* Azken honi lora sorta ederra eman zioten, inaugurazio ekitaldiaren hasieran.

Atzo mahai-inguru irekia egin zen Untzagako egoitzan bertan eta bihar, berriz, Armeria Eskolak hartuko duen jaialdia ospatuko da, puzgarri, tailer, musika eta beste hainbat ekitaldirekin, goiz eta arratsaldean. 11.00etan hasiko dira ekitaldiak eta, eguerdian egingo den atsedendia salbu, egun osoan egongo dira martxan jolasak eta gurasoek kudeatutako taberna.



**MARTITZENAZ GEROZTIK ETA HILAREN 17A BITARTEAN, RITH 2010-AK IRLANDA ZEHARKATUKO DU,** Belfastetik Galwayra, gure Korrikaren antzerako ekitaldian: 1.600 kilometroko ibilbidean, 250 herri zeharkatuko ditu lasterketak eta horrelako ekitaldia antolatzen den lehenengo edizio honetan milaka lagunaren parte-hartzea espero dute antolatzaileek. Rith 2010 Irlandako gaelikoaren astearren barruan antolatu du-

te. Mary McAleese Irlandako presidentea idatzi duen mezua eskutik eskura joango da pasatzen eta helmugara ailegatzen irakurriko dute, St. Patrick's Day festa egunean. AEK-k Rith 2010ean parte hartu du: euskaldunen kilometroa (374) atzo iluntzean, abiatu zen, Dublineko Patrick Street kaletik eta han inguruan dauden euskaldunen parte-hartzea espero zuten antolatzaileek.

## Gaelikoaren aldeko korrikaldia

## Hizkuntzak protagonista datozen egunetan

**EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK, AZKEN URTEOTAN EGIN OHI DUEN MODUAN,** eskolan irakasten dituzten hizkuntzetan garrantzitsu diren hitzaldi eta saiok eskainiko ditu Portalean datozen egunetan, nahi duenak parte har dezan. Lehenengo emanaldia eguaztenean, hilaren 17an izango da, 19.00etan: Catherine Verbruggen-ek “Saveurs francophones” izenburuko hitzaldia emango du. Hilaren 22an, 18.30etan, Andrew Marshall-ek “Revolting Rhymes English Made Easy!” izenburuko ikuskizuna eskainiko du. Martxoaren 24an bertso saio berezia emango dute Hamaika Bertute-ko bertolariak: Ainhoa Agirreazaldegia, Uxue Alberdi, Iñaki Gurrutxaga eta Iñigo Manzisor “Mantxi” bertolariak Iker Iriaretek emandako gaiak jarraituta jardundo dute. Eta egitarauaren azken emanaldia, berriz, Birgit Steinkellnerrek (Alemania-Austria) eskainiko du.



## Martxorako egitarau kulturala prestatu du Montekak

**DOMEKAN BERTAN ABIATUKO DA PROGRAMAZIOA, 19.00-ETAN HASIKO DEN BIDEO-EMANALDIAREKIN:**

Ken Loach-en “Tierra y libertad” pelikula ikusteko aukera izango da. Martxoaren 23rako palindromoan inguruko hitzaldi-tailerra antolatu dute, Markos Gimeno Vespigaren. Hilaren 25ean, “Afalostekoak” afari-tertulien testuinguruan, egoera politikoaren inguruan berba egiteko aukera izango du hala nahi duenak. Afora 21.00etan hasiko da eta ondoren hasiko da tertulia (izena aldeztu aurretik eman behar da, tabernan bertan). Eta hilabeteko ekitaldiekin amaitzeko, hilaren 28an kontzertua emango du Josu eibartarrak eta Zinema Arroxa-ren barruan “El celuloide oculto” emango dute.



## laburrak

**TARRAGONARA IRTEERA** Untzaga jubilatutuek etxeko abesbatzak ikasturte amaierarako irteera antolatu du. Maiatzaren 16tik 22ra Tarragonara, L'Ametlla de Mar-era joango dira. Irteeraren prezioa 250 eurokoa da, logela bikoitza, pentsio osoa, spa eta girotutako igerilekurako sarrera barne.

**NAGUSIAK ZAINTEZKO** Sendian programaren barruan, pertsona nagusi ezinduek etxean hartu eta zaintzen dituzten familiendako ikastaroen emango da martxoaren 22an, 23an, 24an, 25ean eta 26an, 15.00etatik 17.00etara. Oraindik toki batzuk libre daude eta izena eman nahi duenak astelehenera arte izango du horretarako aukera, Pegoran.

**BEER BAND-EN KONZERTUA** Martxoaren 26an kontzertua emango du Beer Band taldeak Coliseoan eta bertara joateko sarrerak honez gero salgai daude, euro bitan, ohiko sistema telematikoei jarraituta edo, nahiago izanez gero, lehiatzen bertan.

# Martxoaren 19ra arte



## 12 BARIXAKUA

20.30 Laboralean

"Rosas rojas"

La Papa Teatro / Bizkaia

Antzezleak:

Rosa Mtnez.-Alcocer,  
Izaskun Asua,  
Ricardo Combi.

Zuzendaria:

R. Combi

Antzezan didaktiko honetan bikote baten harremanean zehar ematen diren pausu eta egoera guztiak tortura psikologikoa, nortasuna ezabatzea, libertatearen deuseztatzea eta bortizkeri zuzena eguneroko bizitzan zelan nagusitu daitezkeen erakusten da.

## 16 MARTITZENA 20.30 Coliseoan


"El Jardín del Mundo"

Las 4 esquinas / Badajoz

Antzezleak: Esteban G. Ballesteros,  
Francisco Blanco, Maite Vallecillo

Zuzendaria: Memé Tabares

Modu xehe, baina erabatekoan, hausnarketa sakona egiten du torturaren gaitzaren inguruan. Oso konprometitua izateaz gain, muturreko elementuez baliatu beharrean, estetika lantzen du, batez ere. Dramaturgia lan izugarria, sentimendu sakonenak babestuz.



Lope de Vegaren antzezanak emakume eder bezain argia aurkezten digu, bere maitasunarekin eta abileziarekin aurrera egiten duena maitasunez eta jelsiaz betetako mundu batean. Egilea komedia berriaren bultzatzailea izan zen bere sasoiari, herri izaera azpimarratuz.

## 17 EGUAZTENA 19.30/22.00

Coliseoan

"La Omisión de la familia Coleman"

Timbre 4 / Argentina

Antzezleak:

Araceli Dvoskin,  
Miriam Odorico,  
Inda Lavalle,  
Tamara Kiper

Zuzendaria:

Claudio Tolcachir




Familia bateko hiru belaunaldirentzat ia ezinezkoa da elkarrekin bizitzea erortzeaz dagoen etxe batean. Argentinan bertan estreinatua zuten eta, saioz saio, ikusleek etxeko egongela leporaino bete zuten lau urtez. Hegoamerika osoan bira egin ondoren, gureganaino heldu da Claudio Tolcachir-en lana.

## 18 EGUENA 20.30 Coliseoan

"Babiloniako Loreak"

FTI / Bizkaia

Antzezleak: Ander Lipus, Espe López, Miren Gaztañaga, Miriam K. Marchante, Alex Gerediaga  
Zuzendaria: Ander Lipus



Hegoa neska gazteak kontzertu bat eskaini behar du, baina lehenago azken agurra eman behar dio bere amona Inesi; honen azken egunak kantu bihurtuko ditu. Guzti hori euskara zein gaztelera erabiliz, euskara jakin gabe ere ulertzeko moduan.

# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, IRATI, bixar hiru urte beteko dozuz-eta. Familixaren partez.




Zorionak, IKER, gaur urte bi betetzen dozuz-eta. Familixa guztiaren partez.




Ongi etorri otsailaren 18tik gure artian dagan ANDONI Olko Gerardiri.




Zorionak, LUR Arriola Ormaetxea, atzo urtia bete zenduan-eta. Familixaren partez.




Zorionak, JOKIN, gaur sei urte betetzen dozuzelako. Muxu bat etxekuen partez.




Zorionak, AIORA, hillaren 7xan urtiak egin zenduaz-eta. Etxekuen partez.




Zorionak, MIKEL, domekan sei urte beteko dozuzelako. Muxu potolo bat, familixaren partez.




Zorionak, LEIRE, astelehenian bost urte beteko dozuzelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, MIKEL Muguruza Morgado, astelehenian lau urte egingo dozuz-eta. Muxu bat familixaren partez.



Zorionak, IZAR, atzo zure urtebetetzia izan zalako. Aitta, ama, Unai eta Gaizkaren partez. Zorionak be amama Rosari bixarko.




Zorionak, NEREA Plaza, gure etxeko printzesa!, astelehenian hiru urte beteko dozuz-eta. Familixa eta lagunaren partez.



Gure poxpolin LOREA Sarasketa Salomonek hiru urte egin zittuan harañegun. Zorionak eta muxu haundi bat familixakuen partez.




Zorionak, amama MARISOL, gaurko zure urtebetetzia. Asko maitte zaittugu! Intza eta Malenen partez.



Zorionak biontzat zuen seigarren urtebetetzia. Muxuak familixakuen eta lagunaren partez. Ondo pasa!

Zorionak, OLATZ (domekan) eta JUNE (atzo), bixok sei urte egiten dozuz-eta. Familixakuen eta lagunaren partez.



## zinea Coliseoan

**12an, 20.30etan; 13an, 19.45 eta 22.30etan**  
**14an, 20.00etan; 15ean, 20.30etan**

### "Al límite"

Zuzendaria: **Martin Campbell**  
Aktoreak: **Mel Gibson, Ray Winstone, Danny Huston, Shawn Roberts...**



Thomas Craven lurjota dago Emma bere alaba bakarra bala batek hil duelako; poliziak uste du bala hori Thomas akabatzeko zela. Bostoneko polizia inspektoreak ez dio ezeri erreparatuko bere alabaren heriotzaren zergatiak aurkitzeko.

### "El secreto de sus ojos"

Zuzendaria: **J.J. Campanella**  
Aktoreak: **Ricardo Darín, Soledad Villamil, Pablo Rago, Javier Godino...**



Benjamin Espósito jubilatu egiten da epaitegian lan egin ondoren eta nobela bat prestatzen hasiko da. Urte batzuk lehenagoko historia hartuko du ardatz, emakume baten bortxaketa eta hilketaren ingurukoa. Bere senarra ezagututa, errudunaren bila hasiko da.

### "Nacidas para sufrir"

Zuzendaria: **M. Albaladejo**  
Pertsonaiak: **Petra Martínez, Adriana Ozores, Malena Alterio, Mª Alfonsa Rosso...**



Flora 72 urteko neskazaharrak bizitza guztia eman du familiako nagusienak zaintzen. Ahizpa oso gazte hil zitzaion eta hiru ilobak ere berak zaindu zituen. Orain berak behar du zaintzailea eta egoitza batean sartuko duten beldur da. Purita da salbazio bakarra.

### JAIOTAKOAK

- Ekain Miguel Sánchez. 2010-II-24.
- Danel Alonso Otero. 2010-II-27.
- Mara Esteban Garrido. 2010-II-28.
- Michel Alexa Sanchez Rivas. 2010-III-2.
- Ane Mateos Barriga. 2010-III-2.
- Alain Toledo Isasi. 2010-III-2.
- Ametz Madarieta Gómez. 2010-III-3.
- Pedro López Carracedo. 2010-III-4.
- Sara Errahmouni. 2010-III-4.
- Gaizka González Alonso. 2010-III-6.

### HILDAKOAK

- Jose Ramon Alberdi Ansola. 78 urte. 2010-III-5.
- Enrique Gerrikabeitia Zabala. 83 urte. 2010-III-6.

horoskopoa

**ARIES**

Ondo jan eta edateko egunak izango dira zuretzat. Jatekoaz ederki gozatzeaz gain, gure gastronomiaren xehetasunak ezaugarrituko ditu.

**TAURUS**

Hasi zaitezke Aste Santurako planak egiten. Zer duzu nahiago: mendia, hiria ala hondartza? Aurten aukeratzeko beta izango duzu.

**GEMINI**

Zure baloreak defendatzen saiatu beharko zenuke eta ez besteei diotenari men egin. Zergatik ez duzu esaten ez duzula berdin pentsatzen?

**CANCER**

Zure papera oso garrantzitsua izango da liskar batean. Liskarra ez da zure erruagatik sortuko, baina zure berbek garrantzia izango dute.

**LEO**

Eztarriko minak ez ditu lo egiten utziko egun batzuetan. Eztulka ibiliko zara eta zerbait hartu beharko duzu hori galarazteko.

**VIRGO**

Nahiko aste beltza daukazu aurretik. Hasiera hasieratik okertuko zaizkizu gauzak eta ez duzu burua jasoko. Hibernetzea pentsatu duzu?

**LIBRA**

Zergatik aldatu ondo doan gauza bat? Saia zaitez bide ona jarraitzen eta ez zaitez nahastu. Hankak lurrean badituzu, trankil egon zaitezke.

**SCORPIUS**

Ez da ezer larria izango, baina irtenbidea aurkitu beharko diozu egoerari. Horretarako laguntza jasoko duzu hurbileko lagun batengandik.

**SAGITTARIUS**

Lagun berezia hurbilduko zaizu, baina ez zaitez gehiegi fidatu. Saia zaitez zer nahi duen jakiten eta zure konfidantza eman ala ez erabaki.

**CAPRICORNIUS**

Arauk diren modukoak dira eta horrela onartu behar dituzu. Zergatik ez zara euretara moldatzen? Ondo egokituko zara, seguru.

**AQUARIUS**

Ezin izango duzu gehiago aguantatu eta lehertu egingo zara. "Nahikoa da!", esango duzu. Arrazoiarekin, ez daukazu zertan hori aguantatu.

**PISCIS**

Familiarekin inoiz baino hurbilago egongo zara eta zuen arteko hartu emana asko sendotuko da ondorioz. Askok ikasiko duzu egun hauetan.

**Barixakua 12**

**ANTZERKIA**

**20.30.-** "Rosas Rojas" (La Papa Teatro). Hezkuntza Esparruan.

**Zapatua 13**

**IKASTOLAK 50 URTE**

**11.00.-** Ikastolaren 50. Urteurrena. Jaialdia: puzgarriak, umeendako jokoak, taberna, denda... Armeria Eskolan).

**BERTSO ASTEA**

**14.30.-** Bertso Bazkaria Amets Arzallus eta Sebastian Lizasorekin. Gai-jartzailea: Hankamotxak Eibarko Bertso Eskola. Arrate Kultur Elkarteak.

**AUTOBUSA**

**16.30.-** "Inposaketarik ez! Euskal Heriak bere hezkuntza!". Bilboko manifestaziora joateko autobusa. Ego Gaineko autobus geltokitik.

**ZINEA**

**17.00.-** Jubilatueendako zinea. "¿Qué fue de los Morgan?". Sarrera doan, Kutxako gonbidapenarekin.

**KALEETAN KANTUZ**

**19.30.-** Kaleetan Kantuz-en irteera. Untzagan.

**ANTZERKIA**

**20.30.-** "La niña de plata" (Alcalá-ko Unibertsitateko antzerki taldea). Hezkuntza Esparruan.

**TALLARRA**

**22.00.-** 8. Urteurren jaialdia, karaokea, Djak... Tallarra gaztetxean.

**Domeka 14**

**TXIRRINDULARITZA**

**10.30.-** XXXII. Udaberri Saria. Untzagan.

**KALEJIRA**

**11.00.-** Usartza Txistulari Bandaren kalejira. Txirio kale eta Ifar kale inguruan.

**UMEENDAKO ZINEA**

**17.00.-** "Tiana y el sapo". Sarrera: 2'80 euro. Amañako Kultur Aretoan.

**BIDEO EMANALDIA**

**19.00.-** "Tierra y libertad" (Zuz: Ken Loach). Montekasino Tabernan.

**Martitzena 16**

**IKASTEN**

**10.00.-** "Factores que condicionan el nacimiento de un movimiento artístico", Ricardo Aldamaren eskutik. EPAn (Isasi, 39).

**ANTZERKIA**

**20.30.-** "El jardín del mundo" (Creaciones Artísticas las 4 Esquinas). Coliseoan.

**Eguaztena 17**

**HITZALDIA**

**19.00.-** "Saveurs Francophones" (Catherine Verbruggen).

**ANTZERKIA**

**19.00 eta 22.00.-** "La omisión de la familia Coleman" (Timbre 4). Coliseoan.

**Eguena 18**

**IKASTEN**

**09.30.-** "Bioética", M<sup>e</sup> Isabel Marijuanen eskutik. San Andres elizako lokaletan.

**ANTZERKIA**

**20.30.-** "Babiloniako Loreak" (Antzerkiola Imaginarioa). Coliseoan.

lehiaketak

**- Lip Dub lehiaketa.**

Gaia: Eibarko merkataritza eta ostalaritza. Informazioa: **Martxoak 29**ra arte, [www.eibar.org](http://www.eibar.org) helbidean.

**- Armagintzaren Museoaren I. Ipuin Lehiaketa.**

Lanak aurkeztea eta informazioa: **Martxoaren 30**era arte, Pegoran. [www.armia-eibar.net](http://www.armia-eibar.net)

**- "Ixua-Valenciaga Memoriala" argazki lehiaketa.**

Lanak aurkeztea: **Apirilaren 28**ra arte, Eibarko Txirrindularien Elkartearen (Pagaegi, 3), [cce@clubciclistaeibarres.org](mailto:cce@clubciclistaeibarres.org)

SUDOKUA


8	5	3	2	9	4	1	7	9
7	1	9	8	9	8	4	5	2
4	2	6	5	7	1	9	4	3
9	7	2	4	1	0	0	3	5
6	4	5	7	3	0	2	9	1
1	3	8	9	2	5	6	4	7
2	9	4	6	5	7	3	1	9
5	8	1	3	4	2	7	9	9
3	6	7	1	0	9	5	2	4

AURREKOAREN EMAITZA

5				7	3		
9			5				
2				8		6	5
		3	1	6			
		5			2		
			8	4	1		
3	6		9				7
				2			9
		8	6				4

DENBORAPASAK





## erakusketak

– Martxoaren 14ra arte

**EMAKUME ARTISTEN** lanak.

Topalekuan.

**IKASTOLAREN 50. URTEURRENA**ren inguruko erakusketa. *Untzagako Jubilatuta Etxean.*

**JOSE LUIS IRIGOIEN**en iazko bertso saioen inguruko argazki erakusketa. *Kultun.*

– Martxoaren 21era arte

**SONIA MIRANDA.** *Portalean.*

– Martxoaren 28ra arte

**“NESKA ARTEAN”** EHUko Arte Ederretako ikasleen artelan erakusketa. *Portalean.*

– Martxoaren 31ra arte

**“GERRA ZIBILA MODELISMOAREN BITARTEZ”,** **PÉREZ GUENAGA** anaien eskutik. *Portalean.*

**“URBANISMOA GENERO IKUSPUNTUTIK”** informazio puntua. *Juan San Martin liburutegian.*

**ELISABET EGUREN**en akuarelak. *El Ambigún.*

## ikastaroak

– **UEUko udaberriko ikastaroak.**

Izen-ematea: Markeskuan edo [www.ueu.org](http://www.ueu.org) helbidean.

– **Erretzeari lagatzeko ikastaroa.**

Noiz: Martxoak 23, apirilak 13, 20 eta 27, maiatzak 4, 11, 18 eta 25 eta irailak 14, 18.30etatik 19.30etara, Portalean. Eskaerak: **Martxoaren 16ra** arte, Pegoran.

– **Reiki.**

Martxoaren 27an eta 28an, Txaltxa Zelaiko Reiki zentruan. Informazioa: 665743217.

– **Bookcrossing.**

7-12 urtekoentzat. Noiz: Aste Santuko oporretan.

Izen-ematea: **Martxoaren 18ra** arte, Liburutegian (5 euro).

– **Nagusiak etxean zaintzen dituztenen prestakuntza.**

Noiz: Martxoak 22, 23, 24, 25 eta 26, 15.00etatik 17.00etara, Andirao elkartearen (Arraten).

Izen-ematea: **Martxoaren 18ra** arte, Pegoran (doan).

– **Gurasoendako ikastaroak.**

2 eta 7 urte bitarteko seme-alabak dituztenentzat. Noiz: Martxoak 4, 8, 18 eta 25ean, 18.00etatik 20.00etara, Portalean. Eskaerak aurkeztea: **Martxoaren 24ra** arte, Pegoran.

## farmaziak

**12, barixakua**

EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ Alberdi (Zubiaurre, 9)

**13, zapatua**

EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)

GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)

**14, domeka**

EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)

GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)

**15, astelehena**

EGUNEZ Las Heras (Sostotarren, 20)

GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)

**16, martitzena**

EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

**17, eguaztena**

EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)

GAUEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

**18, eguena**

EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)

GAUEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

**19, barixakua**

EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)

GAUEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)

## telefono jakingarriak

SOS deiak .....112

Pegora .....010

Udaletxea .....943 70 84 00

Portalea .....943 70 84 39

Udaltzaingoa.....943 20 15 25

Mankomunitatea943 70 07 99

Debegesa.....943 82 01 10

KIUB .....943 20 38 43

Epaitegia .....943 03 34 00

Iberdrola .....901 20 20 20

Naturgas .....902 12 34 56

DYA Larrialdiak.943 46 46 22

Gurutze Gorria..943 22 22 22

Mendaro osp.....943 03 28 00

Anbulategia.....943 03 25 00

Torrekuia .....943 03 26 50

Errepideak .....902 11 20 88

Ertzaintza .....943 53 17 00

Eusko Tren .....902 54 32 10

Pesa .....902 10 12 10

Taxiak.....943 20 30 71

.....943 20 13 25

Alkohol.Anon. ..629 14 18 74

Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00, 08.00, 08.30, 09.00 eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 12.30, 13.30, 15.30, 18.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 15.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 07.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egutero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egutero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Legarren pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzera sartzeko moduan. Berriztua. 25.000.000. pta. Tel. 659-687736.
- Pisua salgai J.A. Mogelen. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Ganbara. Dena kanpora. Berriztua. Prezio onean. Tel. 657-738374.
- Errebal kalean duplexa salgai. 4 logela, egongela, sukalde handia, komun bi, despaxoa eta terraza. Berriztua eta argitsua. Deitu arratsalde. Tel. 605-772606.
- Pisua salgai Eibarko erdialdean. 130 m<sup>2</sup>. 3 logela, komun bi eta despentsa. Guztiz berriztua. Aukera ezinhobea pisu handiago batera aldatzeko. Tel. 626-203838.
- Pisua salgai Ipuruan, J.A. Mogel kalean. 2 logela, egongela, sukaldea despentsarekin, komuna eta trasteroa. Dena kanpora begira eta eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 661-291898 edo 610-603631.

### 1.2. Errentan

- Conilen (Cadiz) apartamentu zoragarria alokagai. Garajearekin. Tel. 653-733457.
- Pisua behar da alokatzeko Eibarren. Tel. 943-254118 edo 680-834754.
- Logela alokagai Legarre-Gaineko pisu batean. Tel. 647-792270.
- Pisua behar da alokatzeko Eibarren. Tel. 696-849004.
- Eibarko bikote batek etxea hartuko luke alokairuan. Tel. 646-566278 edo 626-821620.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Urkizu aldean. Merkea. Tel. 648-196651.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 646-048823 edo 636-430546.
- Logela alokagai emakume bat edo barentzat. Tel. 690-311429.
- Logela alokagai, Untzagatik gertu. Kalefakzioa eta wifia. Tel. 620-633434.
- Eibarren pisua alokagai. Bariantetik gertu. 3 logela, egongela, sukalde-jangela eta bainugela bi. Gas naturala. Inguru lasaia. Tel. 943-201294 edo 645-728317.

## 2. Motorra

### 3.1. Salgai

- Scooter bi (50cc) salgai. Bietako bat piezetarako aproposa. 1.000 euro. Tel. 659-256852.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Amañan lokala salgai edo alokagai. Leku ezinhobean. Guztiz hutsik. Deitu 19.00etatik aurrera. Tel. 943-200919 edo 675-712886.
- Lur-eremua edo txabola erosi edo alokatuko nuke. Tel. 687-043593.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

### 3.2. Alokagai

- Bidebarrietan 33 m<sup>2</sup>ko lokala alokagai. Bulegorako. Tel. 943-207339 edo 650-782118.
- Garaje itxia alokagai Urkizu 9ko dorrean. Tel. 943-200743.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna edo externa. Erreferentziak. Tel. 672-203675.
- Neska eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 651-836353.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egin edo sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 636-001196.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak orduka zaintzeko edo interna moduan. Tel. 618-096628.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 645-366850.
- Mutila eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 616-809926.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanerako. Baita jaiegun eta asteburuetan. Tel. 616-397348.
- Bertako neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 637-180723.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo beste edozein lanerako. Tel. 610-936839.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko edo saltzaile moduan. Esperientzia. Tel. 688-608922.
- Neska eskaintzen da kamarera moduan, umeak zaintzeko eta garbiketa lanerako. Tel. 657-142376.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 675-007271.
- Mutila eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 681-228427.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako edo nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 685-761979.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 608-147559.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 627-213134.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 699-609190.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 637-180723.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 943-531608.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-344377 edo 943-530795.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 652-446228 edo 943-530795.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 699-653874. Cristina.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta beste edozein lanerako. Esperientzia. Tel. 646-394857. Celia.
- Neska eskaintzen da interna edo externa moduan eta orduka lan egiteko. Tel. 665-301550. Charlotte.
- Neska eskaintzen da lan egiteko, interna edo externa moduan. Tel. 679-910991. Sagrario.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko: paseatu etabar. Tel. 648-143804.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanerako. Baita gauzez eta asteburuetan ere. Tel. 686-435056.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanerako. Baita gauzez eta asteburuetan ere. Tel. 656-493864.
- Mutila eskaintzen da nagusiei lagundu edo garbiketa lanerako. Tel. 638-513253.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile moduan. Esperientzia. Tel. 637-180723.
- Emakumea eskaintzen da interna moduan nagusiak zaintzeko. Tel. 618-096628.
- Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanerako. Tel. 687-114707.
- Mutila eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 943-254118 edo 628-526642.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanerako. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 626-329979.
- Mutila eskaintzen da garbiketarako egin, sukaldari jardun, nagusiak zaindu edo igeltsero laguntzaile moduan. Tel. 638-465098.
- Mutila eskaintzen da kamarero moduan, nagusiak zaintzeko etabar. Tel. 689-144723.
- Mutila eskaintzen da kamarero, sukaldari laguntzaile edo margolari lanak egiteko. Tel. 651-607366.
- Emakume arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 943-171583 edo 608-474923.
- Mutil arduratsua eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 697-481489.
- Mutila eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 608-198411.
- Mutila eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 649-962997.
- Neska eskaintzen da orduka umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 669-966611.
- Gizona eskaintzen da igeltsero, sukalde-laguntzaile edo banatzaile moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 638-344377 edo 943-530795.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 600-381767.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 648-603029.

### 4.2. Langile bila

- Estetizista behar dute Elgoibarko estetikazentro batean. Tel. 943-531636.
- Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 616-801304.
- Kamarera behar da herriko erdialdean asteburu eta jai egunetarako. Arratsalde eta gauzez. Tel. 653-019962.
- Sukalde-laguntzailea behar da jate-txe baterako. Tel. 943-121262.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Brother Fax-2820 faxa salgai. Berrria. Ia erabili gabe. 180 euro. Tel. 637-835588.
- Logela klasikoa salgai. Armairua, ohea eta mesilla bi. Metro biko sofa oparitzen da. Tel. 670-497061.
- Koltxoia salgai. 2x1'50. Ia berrria. Tel. 628-573781.
- Kontsola salgai. Xbox 360 elite beltza. 120 gigakoa. HDMI kablea. 7 joku eta mandoarekin. Tel. 655-707052.

### 6.2. Eman

- Sagutxoendako kaiola oparitzen dut. Tel. 658-715978.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Txoria (ninf) galdu zen Ubitxan eguazten goizean. Grisa eta horia, gorri kolorearekin. Tel. 652-721812.

**Aitaren 19**  
MARTXOAK *eguna*

**MAHATSONDO**



Isasi, 19  
686 15 48 67




**BURBUJAS Y MAS**

Zure gorputzarendako eta etxerako  
PRODUKTU NATURALAK:  
"Boles d'olor" nobedadea


Estaziño, 12  
943 53 16 54

**ZENTRAL OPTIKA**

Ego Gain, 2  
943 70 14 08



DESKONTUAK  
EGUZKIRAKO  
BETAURREKOETAN



**EITEK**

[www.eitek.net](http://www.eitek.net)

Bidebarrieta, 50

943 20 30 90



GIZON  
JANZTEKO  
GUZTIA

Birjiñape, 1  
943 20 28 33

**GUBY**

Zuloagatarren, 9  
943 20 12 40



Zuloagatarren, 1  
943 20 22 33

**VALENCIAGA**



# TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

**Materia arriskutsuak / C.A.P.**

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko  
**nazioarteko** agentzia **ziurtagiriak**  
lortzeko ikastaroak




**Estaziño kalea, 8**  
**Tel. 943 70 23 78**

**BERRIA**

**T. Etxebarria, 7**  
**Tel. 943 70 23 84**




ZERBITZUA



ADMINISTRAZIOA



BILERAK



GESTIOA

# EUKI

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

## KOMUNITATEAK